

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25951 - Gizarte Errealitateen Behatokia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

DESKRIPZIO LABURRA:

Irakasgai hau “Praktikak eta Gradu Amaierako Lana” moduluari dagokio, titulu akademikoaren borneyan kreditu gehien duena: gelako praktikak (24 kreditu), kanpoko praktikak (32 kreditu) eta Gradu Amaierako Lana (10 kreditu).

Modulu hau konpetentzia profesionalen garapenari estuki lotuta dago. Izan ere, ikasleek lan profesionalerako ezagutza eta oinarrizko gaitasunak erdiestea bermatzen baita, bai esku-hartzeari dagokionez bai Gizarte Langintzako ikerketari begira ere. Modulu hau titulu akademiko osoan zehar eskaintzen da, jardute profesionalerako hurbilketa progresiboa bilatuz. Prozesu hau practicum eta Gradu Amaierako Lanarekin amaitzen da azken ikasturtean. Harremana duten ikasgaiak: Gizarte baliabideen behatokia, Jardute profesionalerako sarrera, kanpoko praktikak: practicum, Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala eta Gradu Amaierako Lana.

Irakasgai honetan giza errealitatearen oinarrizko ezagutza lantzen da, baita gizarte arazo eta fenomenoak ere, gizarte langintzak ikergai hartzen dituen populazio sektore nagusiak aztertuz. Gizarte sektore eta kolektiboen ikerketak hurbilketa teoriko nahiz diagnostikoa inplikatzeko dira. Aldi berean, talde-lana eta komunikazio gaitasunak (ahozko eta idatzizkoa) landuko dira.

KONPETENTZIA:

Ikasgaiko konpetentzia espezifikoak:

1. - Errealitate soziala kritikoki aztertzea, gizarte-problematika berriak identifikatu eta aurreikusi ahal izateko.
2. - Gizarte-langintzak hartzen dituen biztanleria-sektore eta kolektibo nagusien ezaugarriak eta elementu bereizgarriak ezagutzea eta identifikatzea.
3. - Informazio iturri ezberdin eta IKTak (informazio teknologia berriak) erabiliz, hurbilketa diagnostikoko lan teoriko bat osatzea eta idaztea.
4. - Informazioa laburbiltzea, arrazoiketa hildoak garatzea eta argudiaketa bati eustea.
5. - Zuzentasunez mintzatzen eta idazten jakitea.
6. - Hausnarketa esparru gisa eta analisirako tresna moduan talde-lanean aritzen ikastea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

ANECAk onartutako edukien deskribapena:

- a) Familia, haurrak eta gazteak.
- b) Adineko pertsonak
- d) Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak.
- e) Gaixotasun kroniko edota minusbaliotasunak dituztenak (fisiko, psikiko edota zentzumenekoak)
- f) Etorkinak
- g) Talde etnikoak
- h) Menpekotasunak dituztenak.
- i) Emakumeen kontrako indarkeria
- j) Giltzapeturik daudenak eta egon direnak.

- Ahozko eta idatzizko komunikazioan trebetasunak, bereziki azalpenezkoak.
- Talde-lanerako trebetasunak.

Honetan oinarrituta, ikasgai honako GAIAK lantzen dira:

- I. Talde-lanerako trebetasunak.
- II. Komunikazio trebetasuna, bereziki idatzizkoa. Diskurtso eta argudioen eraikuntza. IKT-en erabilera azalpenetan.
- III. Iturri bibliografikoen bilaketa eta erabilera.
- IV. Gizarte - diagnosira hurbilketa. Arazo sozialen kausa eta efektuak: arazoaren zehaztea.

V. Zeharkako ildoak hurbilketa teoriko-diagnostikoa egiterakoan: genero ikuspegia, kultura artekotasunaren ikuspuntua, hiri eta landa eremuen berezitasunak eta giza eskubideak.

VI. Gizarte sektore eta egoera sozial zaugarrietan dauden kolektibo nagusiak. Hurbilketa teoriko eta diagnostikoa:

- a) Familiak, haurrak eta gazteak.
- b) Emakumeak (genero desberdintasunak eta emakumeen aurkako indarkeria).
- d) Adineko pertsonak .
- e) Gaixotasun kroniko edota minusbalotasunak dituztenak (fisiko, psikiko edota zentzumenekoak).
- f) Menpekotasunak dituztenak.
- g) Giltzapeturik dauden eta egon direnak.
- h) Etorkinak.
- i) Talde etnikoak.
- j) Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak.
- k) Sexualki gutxitutako pertsonak.

METODOLOGIA

Ikasgaiaren izaera praktikoak metodologia partehartzaile eta aktiboak bultzatzen ditu. Ondorioz, irakaskuntzan gelako praktikak ezinbestekoak izango dira. Irakaskuntza mota hauek sustatuko dira, hain zuzen ere:

• Aurkezpen teorikoak

- Gelako praktikak
- Ordenagailuko praktikak
- Ikasleen lan autonomoa
-

• Banakako eta taldeko tutoretzak

Hezkuntza jarduerak:

- Testu irakurketak eta eskola-eztabaidak
- Elkarteko hitzaldiak eta solasaldiak
- Talde lanak
- Taldeko aurkezpenak eta eztabaidak gelan

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|------|---|------|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 15 | | 45 | | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 22,5 | | 67,5 | | | | | | |

Legenda:

M: Maistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgai honek ebaluaketa jarraia lehenesten du.

Ikasleek ebaluaketa jarraiari uko egiteko eskubidea daukate eskolen 5. astea hasi baino lehen. Kasu honetan, EZ AURKEZTUA izango du bere azkenengo notan.

Ikasle batek, arrazoi justifikatuengatik, ebaluaketa jarraian ezin badu parte hartu, azken ebaluazioan parte hartzeko eskubidea izango du. Kasu honetan, ikasgaiaren izaera eta edukiengatik, praktika batzuen beharrari heldu behar zaio. Beraz, azken probaz gain lan batzuk ere egin beharko dira.

Ebaluazio jarraia:

Ebaluaketa honetan entregatzen diren lanak (banakakoak eta taldekoa) kontuan hartuko dira, baita klaseko partehartzea ere. Aipatzekoa da lanak entregatzeak ez duela esan nahi ikasgaia gaindituta dagoenik eta aipatutako konpetentziak erdietsi behar direla ikasgaia gainditzeko. Beraz, lan guztiak gainditu behar dira.

- Banakako lana: "Irakurketen inguruko hausnarketak" (notaren %40)
- Taldeko lana: "Sektoreen inguruko lana eta aurkezpena" (notaren %60: lan idatzia %40 eta aurkezpena %20).

Azken ebaluazioa:

Ikasleak ebaluazio jarraian planteatutako bi lanak egin behar ditu baina biak banakako lanak izango dira. Bestalde, gida honetan agertzen diren ezinbesteko materialetan oinarrituta azken froga bat egin behar du.

- Banakako lana: "Irakurketen inguruko hausnarketak" (notaren %30)
- Banakako lana: "Sektoreen inguruko lana eta aurkezpena" (notaren %30)
- Ezinbesteko materialei buruzko azken froga (notaren %40)

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Familiak, haurrak eta gazteak

RUIZ, Susana y MARTÍN, María del Carmen (2012): "Nuevas formas de familia, viejas políticas familiares. Las familias monomarentales". Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas 33, pp.159-175. Universidad de Jaén.

Emakumeak (genero ezberdintasunak eta emakumeen kontrako indarkeria)

MIER, Iratxe, CANTO, Ainara y URIBELARREA, Elda (2006): "¿Hay mujeres pobres en la CAPV? La pobreza en las mujeres solas". Zerbitzuan 40, pp.67-71.

ORTUBAY, Miren (2005): "Retos y mejoras en la intervención institucional". Congreso sobre violencia contra las mujeres "Construyendo la igualdad". Vitoria-Gasteiz, 19, 20 y 21 de octubre. Pp.1-5.

Adineko pertsonak

BADENES, Nuria y LÓPEZ, M^a Teresa (2011): "Doble dependencia: Abuelos que cuidan nietos en España". Zerbitzuan, 46, pp.107-125.

TOMÉ, María José. "La crisis obliga a cuidar al abuelo en casa". El Correo, 2010-10-10.

Gaixotasun kroniko edota aniztasun funtzioanala dituztenak (fisiko, psikiko edota zentzumenekoak)

CIFRAS INE (2009): "Panorámica de discapacidad en España", Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística (INE).

GARMENDIA, MAITE (1999): "La respuesta educativa a niños y adolescentes con enfermedades crónicas y edad de escolaridad obligatoria en la CAPV". Zerbitzuan 36, pp. 59-64.

Menpekotasunak dituztenak

INSUA, Patricia (Dir.), (2009): Consumo de Alcohol y otras drogas en los contextos festivos a ambos lados del Bidasoa. pp-175-189. San Sebastián. UPV/EHU Servicio de Psicología Aplicada.

PEREZ DEL RIO, Fernando (2006): "Adicción a Internet". LiberAddictus 93. México, D.F. Recuperado 01/07/2014 http://www.liberaddictus.org/v_imprimir.php?articulo=849

Giltzapeturik daudenak eta egon direnak

Manzanos, César (1998): "Salir de prisión: la otra condena", Zerbitzuan, 35, 64-70.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Etorkinak

Martin, María José (2014): “Emakume etorkina Euskal Autonomia Erkidegoan”. En Moreno, Gorka (Ed.). Immigrazioa eta krisiaren eragina. EAEko immigrazioari buruzko 2013ko urtekaria. (137-152). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Talde etnikoak

Arriaga, Mikel y García, Oihane (2007): “Ciclo de vida adolescente, minorías y proyecto de vida de calidad”, IX Congreso Español de Sociología. Barcelona.

Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (2012): “Pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko 2012ko inkesta. Emaiza nagusiak”. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. or 1-14.

Sexualki gutxitutako pertsonak

ORTIZ, Luis (2004): “La opresión de minorías sexuales desde la inequidad de género”, Política y cultura, 22, 161-182.

Gehiago sakontzeko bibliografia

ARARTEKO (2007): “Lehentasun taldeak”. Eusko Legebiltzarrentzako urteko txostena. or. 209-486.

DE LA RED, Natividad (2003): Trabajo Social y demandas emergentes. Madrid. CCS.

GARZIA, Joserra (2008): “Ahozko komunikazioa: eginak egin, badugu zer egin”. IVAP Administrazioa euskaraz aldizkaria, 62, 20-21.

LOPEZ, Ainhoa eta VARELA, Irantzu (2009): “Arazoen zuhaitza”. Garapenerako lankidetzaren proiektu eraldatzaileak egiteko eskuliburua. Eusko Jaurlaritzaren. or.78-95 eta 212-213.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (1948): Giza Eskubideen Aldarrikapena.

TREVITHICK, Pamela (2002): Habilidades de comunicación en intervención social. Madrid. Narcea.

Aldizkariak

CDD Aldizkaria

Drogomedia Boletina

Gizarte.doc Boletina

Gizarteratuz Boletina

Servicios Sociales y Política Social Aldizkaria

Trabajo Social Koadernoak

Trabajo y Acción Social Aldizkaria

Zainduz Koaderno Teknikoak

Zerbitzuan Aldizkaria

Interneteko helbide interesgarriak

Aministia Internacional

Arabako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Ararteko

Bakea eta Elkartasuna Fundazioa-Globalizazioan lanaren behatokia

Bizkaiko Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Cáritas

Emakunde

Espainako Barómetro sociala

Espainako Gizarte Behatokia

EUROSTAT

Gao Lacho Drom Ijitoen Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Gizarte Langintza Elkargo Ofizialen Elkargo-Orokorra

Hautzaroaren behatokia

Ikuspegiak-Gizarte Gaien Behatokia. Inmigrazio Behatokia

INE-Estatistikako Institutu Nazionala

Oberaxe-Arrazakeria eta Xenofobiaren Behatokia

SIIS-Eguia Careaga Fundazioa

OHARRAK

